

noaia

**Udal baratzten
esleipen prozesua,
aurrerabidean**

**1.220 kg zabor
batu zituzten
Oria ibaian**

Martxoak 8, iruditan

Sen taldearen itzulera


Lehen emanaldia gaztetxean eskainiko dute, larunbatean

**IVAN
PEREZ**
ipfoto.es

Bordaberri 3
943 573 775 - 657 795 379
www.ipfoto.es
Argazki Denda



Ezkontzak - Haurrak - Jaunartzeak
Book - Haurdunaldiak - Enpresa
Iragarkia - Kamet Argazkiak
Errebelatze Digitala



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

ASEGURURIK BADUZUE?

DEITU GURE BULEGORA ZUZENEAN (24H)
IZAPIDEAK AZKARTUKO DITUGU
BEILATOKI GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU,
ERREKALDE, POLLOE...eta
ERRAUSKETA-LABEEKIN

ASEGURURIK EZ DUZUE?

AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
FAMILI BAKOITZERA EGOKITUTAKO ZERBITZUAK
BEILATOKI GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU,
ERREKALDE, POLLOE...eta ERRAUSKETA-LABEEKIN
USURBILGO BEILATOKIA DOAN
FINANTZAKETA INTERESIK GABE
OINARRIZKO ZERBITZUAK OSO MERKEAK

Tel: 943.36.21.63

BALTSAMAZIO, KONTSERBAZIO ETA BERREIRAKETAN
ADITUAK, PARTIKULARRENTZAT ETA EHOZKETA
ENPRESENTZAT LAN EGITEN DUGU EUSKAL HERRIAN

info@funerariagonzalez.es munalurra 8, Usurbil

Noaua! Kultur Elkarteko Bazkideen Batzar Nagusia



EGUNA: Martxoak 19, ASTEARTEA
ORDUA: Lehenengo deialdia, 19:00h
Bigarren deialdia, 19:15h
TOKIA: NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan
Bordaberri 3, behea

GAI-ZERRENDA:

1. 2012ko memoria eta balantze ekonomikoa
2. 2013ko egitasmoak eta aurrekontuak
3. Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena
4. Galdera / erantzunak

Albiste iruditan

Elkarretaratzea, Chavezen oroimenez

Beti ohore komandante, mezu horren atzean hainbat herritar bildu ziren joan den ostiral iluntzerako deitua zegoen elkarretaratzean. Zendu berria den Venezuelako presidente Hugo Chavezen oroimenez, bere aldeko estatu hiletak egin ziren egun berean, dolua adierazteko mobilizazioa burutu zen Mikel Laboa plazan. Aurretik eginiko gonbitari erantzunez, hainbat herritar iraultzaren kolore gorriko arropekin agertu ziren hitzordura. Ekitaldian taldeko argazkia atera zen. Asmoa, dolua adierazpen gisa, Venezuelako gobernura bidaltzea da.



Venezuelako gobernura bidaliko dute argazkia, dolu adierazpen gisa.

Laburrean

Hezkuntzako erreforma berriari buruzko hitzaldia

LOMCE zer den, legedi berriak ekarriko dituen ondorioak, eta horren aurrean eman beharreko erantzunaren inguruko informazioa zabaldu asmoz, hitzaldia antolatuta du EH Bilduk martxoaren 18rako, astelehena, 19:00etan Potxoenean. Ruben Iglesias arituko da Espainiako Gobernuak bultzaturiko hezkuntza erreforma berriari buruz hizketan.

Pertsona bat atxilotua, erregaia lapurtzeagatik

Ertzaintzak 27 urteko pertsona bat atxilotu zuen larunbat goizaldean Usurbilen, industria gune-etako batean aparkatua zegoen kamioi bateko erregaia lapurtzeagatik. Gertaera goizaldeko 4:30ak aldera izan zen. Dei bat jaso zuen Ertzaintzak, ustez, aipatu lekuan bi pertsona aparkatua zegoen kamioi bateko erregaia lapurtzen ari zirela ohartaraziz. Bakarra atxilotu zuten, ordea.

Aspaldiko partez, langabeziak behera egin du

Azken hilabeteotako joera hautsi da azkenean. Langabeziak behera egin du otsailean Usurbilen. 371 herritar zeuden lanik gabe joan den hilean, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak kaleratu berri dituen datuen arabera. Urtarrilean baino 11 langabetu gutxiago, orduan 382 langabetu baitzeuden Usurbilen. Beherakada txikia izan arren, joera batekin apurtu da aspaldiko partez.

noaúa

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaúa.com /// www.noaúa.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Ana Aizpurua.

Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publikitate: Bea Alda,
publizitate@noaúa.com.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzio@noaúa.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa
Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria
Jesus Urbieta, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,
Denis Elortza, Pello Aranburu,
Xabier Aranburu, Inma Balda,
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia
Torregarai eta Udarregei ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Aritz Gorriti

Erabil dezaten, erabil dezagun

Beste inork ezin du gugatik egin, gutako bakoitzak ordea egiteko asko izan dezakegu. Egutero, esnatu eta ondoko agurtzerakoan, tabernariari kafe-esnea eskatzerakoan, lantokian edo klasean ikas-kideekin nahiz lankideekin eztabaidatu edo solasean aritzera-koan, azken orduan erosketak egitera joan eta dendariari aurkitu ez dugun produktuaz galdetzerakoan, kalean paseatzerakoan gaizki pasa izan eta aspal-di ikusi ez diogun horretaz arduratzerakoan, lagunekin ze ondo pasatzen dugun adierazterakoan... Kalean, etxean, lantokian, unibertsitateko ikasgelan, aste-

buruetako lagun artean, famili giroko otorduetan, bikotekide-arekin, seigarreneko bizi laguna-ekin...

Zenbat egoera, eguneroko bizitzan, eta guztietan egin dezakegu. Ahal izanik halere, egiten al dugu? Agian batzuetan ez. Ze ulertuko ote nau? Eta ulertzen ez banau? Hobe "ulertzeko moduan" hitz egitea berari, bestela gaizki ulertuak izango ditugu. Denborarik ez dut gainera, presaka nabil. Pazientzia gutxiago orain keinuekin esan nahi dudana azaltzeko. Eta beste lagun honekin? Baina beti hitz egin dugu eta hitz egin dugun moduan! Hala nago ohitua, eta

orain ohituraz aldatzeko ezin dut ezer egin.

Edo bai? Saiatzean omen dago gakoa. Euskal Herriko txoko asko eta askotan, lau hormen barruan saiatzen diren lagun ezezagun horiei esan bestela. Eurak izango dira egunotako euskal herritar "VIP"-ak. Saiakera ere, zoriondu eta eskertu beharra baitago. Baina saiatzeko aukera ere izan behar dute eurek, lehen aipaturiko lau horma horietatik kanpora. Eta hori bai ez dago euren esku. Kalean topo egiten dutenen gainerakoan, gutako askoren esku baizik. Eurentzat oso garrantzitsua da, dakigunok erabiltzea. Eurak ere erabiltzen ohi-

tu daitezten. Gu gara neurri handi batean, euren giltza. Eta beraien saiakera, gutako askorentzat eredu. Hemen ez dago beraz ikasle eta irakasle argirik. Edo bai. Denok irakatsi, eta ikasi dezakegu elkarrengandik. Saiatuz, erabiltzeko. Erabiliz ikasteko. Ikasi ahala irakasteko. Elkarrengandik ikasteko, elkar emateko, euskara. Batzuk eta besteak, ostegun honetan Andoaindik abiatu eta Baionara bidean, Usurbila helduko den 18. Korrikan topo egingo dute martxoaren 23an. Baina ez dadila dena hor geratu. Hortik aurrera, martxoaren 24an ere segi dezagula erabiltzen.

Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre

Ika-Mika

Teresaenea biziberritzeko asmoz

Usurbilgo gazte batzuk Teresaenea okupatu dugu. Okupazioa gizarte egoera hau, eta honen barne, etxebizitza eredia salatzeko ekintza gisa hartzen dugu. Euskal Herrian hutsik dauden etxeen kopurua izugarria da, 255.000 etxe, etxebizitza guttien % ... Usurbilgo kasuan 255 etxe inguru. Hau gutxi balitz, ban-

ketxeen negozio ilunak arazo hau puztutzen dihardu, etxegabetzek sorturiko ondorioak gero eta larriagoak direlarik. Herritarroi, are eta gehiago gazteoi, bizi dugun egoeran etxe baten beharra aseztea asko zaildu zaigu, kasik ezinezko bilakatzeraino. Alternatiba bezala Babes Ofizialeko etxeak planteatzen dira, baina nahiz eta

etxe hauen prezioa baxuagoa izan honek oso altua izaten jarraitzen du, zorpetze hauetan ezin delarik edonor sartu. Alokairu Sozialeko etxeak ere ez ditugu gaur egungo soluzio gisa ikusten, oso apurrak direlako gure herrian eta ez daudelako guztiontzat eskuragarri. Hau guztia dela eta, esparru hutsak biziberrituz betidanik eskai-

ni zaigun bizimoduarekin hautsi eta bizimolde berri bat bilatu nahi dugu. Argi dugu hiltzen ari zen eraikina ez dela gurea, baina hutsunea betez uste dugu ez diogula inori kalterik egiten.

Gurekin hitz egin nahi duen orok atek irekiak ditu. Etxe hutsik ez!

Texaniako okupak

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia.

Hurrengo alea: martxoak 22. Idatzia ekartzeko azken eguna: martxoak 18.

Udal baratzen esleipen prozesua, aurrerabidean

A gerreazpi eremuan kokatzea aurreikusiak dauden udal baratzetako esleipen prozesua aurrerabidean da. Udalak jada, alde zuretik izena eman zuten artean, "2013/0250 dekretuaren bidez", baztertuen eta onartuen behin behineko zerrendak kaleratu berri ditu. Zerrenda hauek usurbil.net atarian kontsulta daitezke. Guztira, sei eskaera baztertu eta gehienak, gainerako 62ak onartu dituzte.

Zerrendetako herritarrei zuzenduriko honako oharra ere helarazi dute Udaletik. "Interdunek 10 lan eguneko epea dute, martxoaren 15era arte, beharrezkoa ikusten badute, ondoen deritzoten erreklamazioak aurkezteko onartutakoen eta baztertutakoen behin behineko zerrenda hauen aurrean".

ZOKKETA, ALEGAZIOEN OSTEAN

Aldaketarik ez bada, udal baratza hauen esleipen prozesuan emango diren hurrengo urratsak, honako hauek izango dira:

-Alegazioak erantzun ostean, Udalak onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda plazaratuko du.

-Zozketa egingo da, alde zurretik jakinaraziko den egun, ordu eta lekuan. Modu



Udaletxeak egin duen eskaintzara animatu diren herritarrak asko izan dira.

horretan, partzelak behin behingoz esleituko ditu Udalak.

- Behin behingoz partzelak esleitu zaizkien herritarrek, udal baratzeen emakida eta erabilera arautzeko erregelamendua betetzen dituztela

egiaztatuko du Udalak. Hala bada, behin betiko esleituko zaie lur eremua. Bestela, itxarrote zerrendan egon eta baldintza guztiak betetzen dituen lehenengo pertsonari esleituko zaio.

-Zozketa ordenaren arabera,

itxarrote zerrendan geratuko dira partzela bat egokitu ez zaien herritarrak. Esleipen tartea amaitu baino lehen, partzelaren bat hutsik geratzen bada, itxaron zerrendan dagoen lehen pertsonak ordezkatu du.

Baliogarrizat jo dute European, Gipuzkoako hondakinen kudeaketa eredia

H ilabete lehenago iragarri moduan, Gipuzkoako ordezkari bat Bruselan izan zen aurreko astean, Gipuzkoako hondakinen kudeaketa eredia aurkezten. "Ez bazaude Zero Zaborraren alde, zenbat zaborraren alde zaude?" izeneko mintegian parte hartzeko aukera izan

zuten. Aldundiak duen hondakinen kudeaketa planaren nondik norakoen berri eman zuen Iñaki Errazkin ingurumen diputatuak, Europako hainbat parlamentariaren aurrean.

Europako Batasuneko Ingurumeneko komisario Janez Potocnik ere mintegian bertan par-

te hartu zuen. Bere ustez, Gipuzkoako hondakinen kudeaketa eredia adierazgarria, garrantzitsua eta ikasteko baliagarria izan daiteke. Birziklagarria den ezer ezin da zabortegietara bota edo erraustu bere ustez, eta errausketa ez da hondakinak kudeatzeko modu egokia.

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

URDAINTZI@EUSKALNET.NET

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

TXAPELDUN
TABERNA

razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...

Muna Iurra 2, 943 11 82 53

Zuen
publizitatea
hemen

© 943 360 321
publizitatea@noaia.com

Hamar urteren ondoren, zuzenekoetara itzuliko da Sen taldea

Gogotsu, baina urduri. Horrela sumatu dugu Haritz Harreguy, Sen taldeko gitarrajolea. Bi disko plazaratu eta hainbat kontzertu eskaini ondoren, taldearen martxa eten egin zen. Hamar urteren ondoren, zuzeneko batzuk emateko asmoz elkartu dira. Kantu berri bat grabatu dute eta lehen kontzertua larunbat honetan eskainiko dute Usurbilgo gaztetxean, 23:00etan.

Itzulera iragarri duzuen honetan, lehen emanaldia Usurbilgo gaztetxean eskainiko duzue, larunbat honetan.

Haritz Harreguy. Gazte Danbada aritzekoak gara, eta hara joan aurretik pentsatu genuen errodaje bezala kontzerturen bat egitea. Eta gaztetxean izango da eskainiko dugun lehena.

Beste musikari asko bezala, gaztetxeetan hasitakoak zara. Herrian bertan orain gaztetxe bat edukitzea pozgarria izango da zuretzat, ezta?

Indar handia eman dio herriari. Orain dela bi-hiru urte jendea lokaletan zegoen. Nik bi ume ditut eta, nire artean, *herriarentzat zer daukagu hemen?* Baina gazte mugimendu hau piztu da eta fundamentu handia dute. Erraustegiaren asuntzarekin hasi ziren, Itaya sortu zen ondoren eta orain niretzat luxu bat da horrelako gaztetxe bat edukitzea herrian.

Beste herrietako gaztetxeen mugimendua ezagutzen duzu. Baina hemen, martxan jarri zenetik, eskaintza zabala ari dira egiten, ezta?

Eta nola ireki den herrira gai-



Haritz Harreguy Higainen, San Estebanen duen estudioan.

“Usurbilgo gaztetxeak indar handia eman dio herriari. Gazte hauek fundamentu handia dute”

nera. Lontxo Zubiria hor dabil erraldoiekin. Festetan ibiltzen gara erraldoiekin dantzan eta gaztetxera joaten gara. Gu goian erraldoiekin umeei dantzak erakusten, eta behean afrikar dantza ikastaroa egiten.

Jaboa egiteko ikastaroan ere, kotxe pilo bat zegoen gaztetxearen kanpoaldean. Mugimendu handia dago, bai.

Gaztetxea bultzatzeko modu bat ere bada Senen lehen kontzertua bertan eskaintzea, ala ez?

Hori hala bada, ba ni pozik. Nik ahal badut, ahalik eta

gehien lagunduko diet. Ilusio-natuta daudela dirudi.

Zuen kantuak oharkabean igaro ez ziren seinale.

Aurreko batean, gazte talde bat etorri zitzaidan, kontzertu bat Senen abesti batekin amaitu zutela esanez. Bere garaian, hori pentsaezina iruditzen zitzaidan.

Nola suertatu zen itzulerarena?

Urtarrilean edo erabaki genuen. Baina ez dugu ezer planifikatu. Oraingoz bi emanaldi ditugu, larunbatekoa Usurbilen eta Gazte Danbadakoa Aste Santuan. Hortik aurrera ikusiko dugu. Ea ze panorama topatzen dugun eta jendeak nola erantzuten duen. Jendeak eskatzen badu, ba aurrera. Baina epe jakin bat izango da.

Entseatzen zabilzate egunotan. Zer nolako sentsazioak?

Onak. Astean bitan ari gara entseatzen. Ondo joatea nahi dugu baina dena martxan jaritzeak lan handia eskatzen du.

Hurrengo hitzordua, Gazte Danbada

Hamar urtez agertokietatik kanpo egon ondoren, taula gainera itzuliko da Sen taldea. Eta garai berriko lehen kontzertua Usurbilgo gaztetxean eskainiko dute, larunbat honetan. Bi dira iragarri dituzten saioak: lehena Usurbilgoa eta, bestea, Gazte Danbada jaialdian, Arabako Urduñan egingo den ekitaldian. Baina gehiago ere etorriko dira. Gauzak ondo bidean, emanaldi gehiago eskainiko di-



Sen taldea, aspaldiko promozio argazki batean.

tuztela 2013an zehar. Kontzertuotan, bi diskoetako kantuak entzungo dira eta

propio itzulera honetarako grabatu duten abesti berri bat ere.

Ernai gazte taldea: “Guztiek hartzen dituzte erabakiak gure ordeztan”

Martxoaren 2an Lizarran eginitako estreinako kongresuan sortu zen Ernai, nazio mailan egituraturiko Ezker Abertzaleko gazte erakunde berria. “Euskal estatu sozialista eta feminista” dute helburu. Ernaik auzo eta herrietan egon nahi du, eta horren erakusle, Usurbilen sortu den lan-taldea. Apirilean aurkezpen publikoak egitekoak diren arren, gazte antolakunde berriari buruz edota martxoa amaieran Urduñan ospatuko den Gazte Danbadaz jardun dute aipatu lan-taldeko ordezkariak NOAUA!rekin.



Ernai gazte erakunde osatu berri da. Usurbilen ere izango du bere lan-talde propioa.

Sortu berria da Ernai. Nondik norako gazte antolakundeaz hitz egiten ari gara?

Ernai: Euskal estatu sozialista eta feminista helburu duen gazte antolakunde berria da. Beti ere gazte herria iparrorantz hartuta. Guztiek hartzen dituzte erabakiak gure ordeztan. Ez gara isilik ez geldirik geratuko, sistema kapitalista inposatzen zaigun artean, ez gara inoren ardi. Geure buruen jabe gara. Sistemaren eta bere bultzatzaile nagusien inposaketei aurre egitea gazte boterea artikulatuz eta gure burua ahaldunduz, kontzientzia zabalduz soilik lortuko dugu.

Zukgua prozesutik sortu da bilgune berria. Zer balorazio egin dezakezue prozesu horretaz?

Uda hasieran lan-talde motorra osatu zen. Gazte problematikaren inguruan eginitako lanketa oinarri hartuta, lan-ildoak finkatzen joan ginen. Lanketa hiru bloke ezberdinetan banatu genuen; egoe-

ZUKGUA-TIK, ERNAI
“Lizarrako lehen kongresuarekin eman zitzaien amaiera Zukgua prozesuari eta, bertan, sortu zen Ernai”

raren azterketa orokorra, ziklo politikoaren irakurketa eta gazte estrategia. Lanketa burutu ostean, zukgua prozesuaren aurkezpena egin ostean, afaritxo baten inguruan herritarrei prozesu eratzailan parte hartzeko gonbita luzatu zitzaion. Inoizko aukera baten aurrean geunden, garai berri hauetara egokituz orri zuri baten gainean idazteko aukera genuen, nahi genuen doinu eta neurrian, nondik gatozen inoiz ahaztu gabe. Gazteria antolatua 30 urteetan izan duen ibilbidearen uzta ere jaso dugu, ondo egindakoa gogoan hartuz eta gaizki egindakoetatik ikasiz. Prozesu eratzaila honek hilabete luzeetako iraupena izan du, bertan, jende ezberdina bil-

duz, norberak bere hondar aletxo ezarriz eta elkarrengandik ikasiz, kolektiboa osatuz. Azken finean, hori da Zukgua. 2013ko martxoaren 2an Lizarrako lehen kongresuarekin eman zitzaien amaiera prozesuari eta, bertan, Ernai sortu zen.

Herrietan, kalean zuen presentzia bermatu nahi duzue. Gazte antolakunde berriari lotuta, herrian taldea osatu duzue, zer helbururekin?

Usurbilgo kasuan, herritar ezberdinak osatzen dugu lan-taldea, gazte problematika pairatu eta honi aurre egiteko prest gaudenak. Ernai zapalduekin, gazteriarekin, herri sektoreekin eskuz esku lanean egongo da. Herriko eragile ezberdinekin elkarlanean arituko gara. Gurekin identifikatuta sentitzen den edonork ateak irekita ditu. Apirilean herrian aurkezpen ekitaldia egingo dugu. Eta aurkezpenaren ostean asanblada deituko dugu. Gazteok bi aukera ditugu

une honetan: zapalduta jarraituta eta prekarietatean bizirautea, merkatuen diktadurapean peoi izaten jarraitzea, edo gure buruen jabe izatea, kontraerasoari ekin eta euskal estatu sozialista eta feminista eraikitzea.

Martxoaren amaieran, Urduñara

Gazte danbada antolatu da, martxoa amaieran Urduñan.

Ernai. Hilaren 29,30, 31 eta apirilaren 1ean. Ekin-tza ezberdinak burutuko dira bertan; hitzaldiak, tailerrak, musika txokoa, kontzertuak... Aukera ezin hobe beste herrietako gazteekin harremanak egin, sustatu eta borrokarako gogoak pizteko. Eskualdeko herriekin autobusa antolatuko da. Jaialdiari buruzko informazio gehiago: gaztedanbada.net

Datorren astean iritsiko da Korrika gure artera



Korrika Txikia martxoaren 21ean ospatuko da. Argazkian, duela bi urteko edizioa.

Ostegun arratsalde honetako 16:00etan abiatuko da 18. Korrika, Andoaingo Martin Ugalde kultur parketik. Hamar egunez Euskal Herria alderik alde zeharkatu ostean, Baionara helduko da martxoaren 24an. Egun horretan, Lapurdiko hiriburura joateko autobusa antolatuko du Korrika Batzordeak. Usurbildik berriz, helmugara ailegatu bezperan igaroko da euskararen aldeko lasterketa. Hilaren 23an, larunbat arratsaldez.

Egun horren bueltan ekimen desberdinak antolatuko ditu Korrika Batzordeak. Udarregi Ikastolak prestaturiko Korrika Txikiarekin hasiko da ordea, euskararen aldeko aldarrikapen-festa. Hona hemen, datorren asterako iragarria dagoen egitarau osoa:

Martxoak 21, osteguna

Korrika Txikia

14:30 Korrika Txikia.

16:30 Txokolatada eta antzerkia frontoian. Antolatzailea: Udarregi Ikastola.

Martxoak 22, ostirala

22:00 Pin pon txapelketa frontoian (izen ematea, 21:30ean).

Martxoak 23, larunbata

18. Korrika Usurbilen

11:00 Txokotan palaz frontoian.

15:44 Aginagatik sartuko da Korrika 18.

16:33 Korrika 18 Kaxkoan.

18:00-20:00 Erromeria frontoian.

21:00 Bertso afaria, Agerialdeko jangelan. Txartelak salgai 16 eurotan, Txirristran, Aitzagan eta Etumeta AEK euskaltegian.

Martxoak 24, igandea

Baionara, Korrika amaierara

9:15 Korrika 18ren amaiera festara joateko autobusa, Mikel Laboa plaza ondoko errotondatik abiatuta. 21:00 Itzulera.

Izen ematea: Bordatxon, Txiribogan eta Etumeta AEK euskaltegian, martxoaren 21a baino lehen.

Lehen urtea bete du Potxoeneak

Eraikina inauguratu zuteneko lehen urtea bete da. 2012ko martxoaren 3an ospatu zen irekiera ekitaldia, udal eta Foru Aldundiko ordezkariekin batera, herritarrek eta eragile desberdinetako kideak bertan zirela. Norberarentzat kultur etxea zer den, galdera hau ardatz hartuta prestatu zuten xume, herrikoi eta parte hartzailea izatea nahi zuten aipatu ekitaldia Kultura Aholku Batzordeko kideek. Azken urtean herritarren eta eragileen erabilerarako berreskuratu den eraikina dugu, urtea bete berri duen Irazu kaleko Potxoenea.

Kultura, Euskara eta Gazteria udal sailen aterpe

Herri eragileen bilgune, hainbat hitzorduren lekuko eta beste hainbat ekimen antolatze tokian bihurtu da kultur etxe berria.

Udaletxeko Kultura, Euskara eta Gazteria sailako bulegoen aterpe ere bada Potxoenea.

Ariketa fisikoak egiteko tresnak Bizkarren

Udalaren Ongizate Sailak Bizkarreko pasealekuaren albo batean, ariketa fisikoa egin ahal izateko tresnak jarri ditu. Udal web orriaren esanetan, "ariketa desberdinak egin ahalko dira bertan oso era errazean. Jarri berri diren postu hauek ingurumenara txertatu nahi izan dira, begi-kolperik txikiena emateko asmoarekin". Udalak bertaratzeko gonbita luzatzen die herritarrei.

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatuak eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

1.220 kg zabor batu zituzten

Udalarekin elkarlanean, Oria ibaia garbitzeko deia zabaldu zuen Urgarden taldeak. “20 bat lagun elkartu ginen”, adierazi digute Urgardenetik. Santueneko zubian batu ziren martxoaren 2an larunbata. Hasiera batean, Euskotreneko zubi azpiko irlatxora jo nahi zuten. “Baina azken astean egindako elurra nabarmen urtu zenez, ibaia emari handiarekin zetorren eta ezin izan ginen heldu proposatutako lekura”. Erriberara abiatu ziren bolondres guztiak eta gogotik lan egin behar izan zuten. 1.220 kg ez baitira aise batzen.



Udal Zerbitzuetako arduradunen esanetan, 1.220 kg batu zituzten martxoaren 2ko auzolanean.



Gehien bat plastikoa, egur zatiak eta tela zatiak jaso zituzten.



Negutegietako plastiko zati handiak eta metalak ere kendu zituzten.



Eski batzuk edota aspiradora bat ere “agertu” ziren zaborren artean.



20 bat lagun aritu ziren gogotik lanean (argazki guztiak: Urgarden).

“Denok ados jarri gaituen

Hezkuntzako partehartze prozesuari buruzko balorazioa egin du talde eragileak

Etorkizuneko Usurbilerako hezkuntza eredu lantzen aritu dira hainbat herritar, urritik otsailera luzatu den parte hartze prozesu baten baitan. Iragarria zegoen bilera sorta amaituta, balorazioerako txanda da orain. Lan-keta horretan jardun duen talde eragileari eginiko elkarrizketa duzue jarraian. Hezkuntzako parte hartze prozesuak emandakoaz, edota aurrera begira jorratu asmo dagoen bidez galdetu diegu.

Etorkizuneko hezkuntza eredu adostea zen parte hartze prozesuko helburu nagusia. Bilera sorta hone-tatik, aurrera begirako zer nolako eredu sortu da? Zer ezaugarriekin?

Talde eragilea. Usurbilgo eskoletan nahiz ikastolan nolako hezkuntza-eredua nahiko genukeen adosteko bildu gara. Bakoitzak bere definizioa zuen buruan eta denok ados



Argazkian, talde eragileko ordezkariak.

jarri gaituen eredu marraztu dugu. Herriko errealitatean txertatutako eskola nahi dugu; euskalduna dena eta parte hartzea bermatuko duena. Inklusiboa izan dadin

nahi dugu eta Usurbildik hasita kanpora begira egongo dena. Berdinta-

“Usurbilgo ikastetxeetako esperientziaren ezagutza eta elkar trukaketatik abiatu da herri-hezkuntzaren proiektua”

sunean oinarrituko den eskola eta emozioen hezkuntzan eta kudeaketan oinarrituta egongo dena. Era berean, pertsona kritikoak heziko dituen eskola nahi dugu, dogmak kuestionatzeko gai diren pertsonak, espiritu kritikokoak, eta beren kabuz bizitzeko eta pentsatzeko gai direnak. Usurbilgo ikastetxeetako esperientziaren ezagutza eta elkar trukaketatik abiatu da herri-hezkuntzaren proiektua.

Hainbat aurkezpen egingo dira

Hezkuntza mahaia osatu arteko bidea jorratuko duzue. Zeintzuk izango dira emango dituzuen hurrengo urratsak?

Talde eragilea. Lehenik eta behin, ezagutza eman nahi dugu herri-hezkuntza proiektu hau. Aurkezpen eta saio desberdinak egingo dira. Etxetan ere banatuko dugu aditzaera eman nahi dugunaren laburpen bat. Era berean, nahi duenak ere dokumentua bere osotasunean jaso ahal izango du.

Helburu nagusia, ikasturtea amai-

tzerako hezkuntza mahaia osatzea da. Hezkuntza eragile desberdinak eta ikastetxe desberdinek osatuko dute mahai hau. Eta lehen urratsa mahai honen egitekoak eta funtzioak definitzea izango da.

Hau dena egikaritzeko, prozesu-tik ateratako lantalde bat dago, jarraipeneko urratsak emateko mahaia martxan jarri bitartean. Edonola, herritarrei irekitako taldea da azken hau.

Etorkizunean zer modutan apli-

katu asmo duzue "herri-hezkuntza proiektu" hau?

Mahaia definituko ditu dokumentuan azaltzen diren lehentasunak. Mahaia berak adieraziko du, beraz, oinarri pedagogikoetan, izaeran eta antolaketa zein urrats eman behar diren edota ze lanketa eta egitasmo bideratu behar dituen.

Eransteko besterik bai?

Etxez etxe dokumentuaren laburpen bat bidaltzeaz gain, dokumentua Udaleko webgunean izango da.

Eredu honek zer dio, ikasle, guraso, eta oro har, hezitzaileez edo hezkuntza alorreko eragileez?

Aipatzen dituzun eragile horiek guztiak askotan talde independente bezala ikusten ditugu. Bakoitzak bere autonomia duen arren, ezinbesteko garrantzia du ikas-komunitatearen funtzionamenduan. Bistan da denen arteko harremana eta inplikazioa beharrezkoa dela. Denek du-

eredua marraztu dugu”



**Prozesura
“etorri diren
herritar guztiek izan
dute partehartze
aktiboa eta
aportatzeko zerbait
izan dute
denek”**

Partehartze prozesuan hainbat herritarrek hartu dute parte.

gu gu-
re tokia
hezkun-
tzan eta
guztien arte-
ko elkartrukean oi-
narritu behar du hezkuntzak
berak. Izan ere, eskola ez da
ikasle eta irakasleek soilik

osutzen duten ko-
munitatea. Hauen in-
guruan dauden talde-
ak eta hezitzaileak ere
bertako osagaiak dira
eta ezin dira alde
batera utzi. Esko-
lak, finean, denok inplika-
tzen gaitu.

**Zer balorazio egin dezake-
zue hezkuntza alorreko pro-
zesu honek izan duen parte
hartzearen inguruan?**

Prozesua sortu eta diseinatu
zen momentutik talde eragile-
aren aniztasuna hartu zen
kontuan, gai honen inguruan
zeuden iritzi desberdinak ja-

so nahian. Eragile desberdi-
nak daude herrian eta denak
uztartzea zen lehen helburua.
Hala, bertan parte hartu dute
Ikastolako irakasleek eta gu-
rasoek, Eskola Txikietako gu-
rasoek, alderdi politiko des-
berdinek... Pena izan da Au-
kera taldekoek parte hartu ez
izana. Talde eragileaz gain,
herritarren partehartzea dau-
kagu. Saioek harrera ezin ho-
bea izan dute, 55 lagunetik
gora bildu baikara bertan. Ar-
gi ikusi da Usurbilen hezkun-
tzaganako dagoen inplikazioa
nahiz sentsibilitatea. Etorri
diren herritar guztiek izan
dute partehartze aktiboa eta
aportatzeko zerbait izan dute
denek. Erantzuna oso positi-
boa izan da eta ikusgai geratu
da Usurbilen badela hezkun-
tzaganako arreta berezi bat.

**Aipatzeko beste alderdia,
prozesu honetan erabili den
metodologia. Zer nolako
eragina izan du burutu du-
zuen lanketan? Zertan izan
zaizue lagungarria?**

Elhuyar izan dugu bidelagun
prozesu honetan. Alde bate-
tik, Talde Eragilearen osaera
garrantzitsua izan da saioe-
tan adostasuna lortzeko. Tal-
de honek irizpideak eztabai-
datu eta adosten zituen, gero-
ra herritarrei erakusteko. Her-
ritarrek beren iritziak eta
ekarpenak egin dituzte, azke-
nean denon artean adostu du-
gun dokumentua doitzeko eta
taxutzeko.

Aipatu beharra dago, baita
ere, izan ditugun bilerak ez
direla eseri eta entzun forma-
tukoak. Herritarrek aktiboki
parte hartu dute bileretan.
Izan ere, bilera hauek erabat
dinamikoak izan dira eta par-
te hartzaile guztien inplika-
zioa azpimarratzekoa izan
da.

“Bakoitzak uste genuena baino gehiagok elkartzen gaitu”

**Ekarpen desberdinak jasoko ziren
prozesuan zehar. Zer nolako lan-
keta egin behar izan duzue,
horiek denak dokumentu bate-
an bildu arte?**

Talde eragilea. Ikuspuntu desberdi-
nak jaso dira. Usurbilgo hezkuntza
komunitatearen aniztasuna islatzen
duen prozesua izan da: komunita-
teak iritzi desberdinak ditu hezkun-
tzan eta beste edozein arlotan ere.

Norbanakoak bere modura ulertzen
du hezkuntza. Iritzi guztiak mahai
gainean jarri ditugu eta ados geun-
den puntuak jaso ditugu, batez ere
batzen gaituena azpimarratu dugu.

**Prozesu guztiek izaten dituzte uste
"gazi-gozaok", edo gorabeherak,
nolabait esateko. Bileretan jorra-
tu diren zer alderdi, ezaugarri edo
puntuek izan dute adostasun**

**gehien? Eta zerk eragin ditu
desadostasun edo eztabaida han-
dienak?**

Adostasuna lortzea ez da zaila izan.
Esan bezala, bakoitzak uste genu-
ena baino gehiagok elkartzen gaitu.
Denon oniritzia duen dokumentua
sortu eta doitu dugu. Aurrerantze-
an, dokumentuan biltzen dena mar-
txan jartzea izango da benetako
erronka.

Martxoak 8, iruditan

Egitarau oparoa osatu dute aurtengoan, Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren harira, Parekidetasun Kontseiluak; Bota Punttubak, Gaztelekuak eta Itaya Gazte Asanbladak antolatu dituzten ekimenek.

Denetariko hitzorduak tartekatuta dira. Binakako emakumeen pala txapelketak eman zion hasiera ekitaldi sortari. Gaztelekukoek eman zioten jarraipena, frontoian margotu zuten emakumeen eskubideen aldeko muralarekin. Collage itxura zuten lanak, eta besteak beste,

tximeleta baten barruan umetokia irudikatu zuten, eta besetik emakumea kirola egiten. Martxoaren 7an izan zen hori, jarraian, iluntzean, bertso-afaria ospatu zen Artzabalen. Iaz bezala, aurrean ere, sarrerak salgai jarri eta egun gutxira agortu dira. Maialen Lujanbio, Amaia Agirre eta Uxue Alberdiren saioaz gozatu ahal izan zuten, baita "Gozamenez" klown bakarriketa saioaz ere. Biharamunean, Itayakoen txanda izan zen, besteak beste, Usurbilgo Gaztetxean antolatu zuten kontzertu gauarekin.

Baina ez dira hemen amaitzen, Emakume Langilearen



Argazki erakusketa zabalik dago oraindik.

Nazioarteko Egunaren harira Usurbilen antolatu diren ekimenak. Ostiral honetara arte, martxoaren 15era arte, ikusgai dago herriko emakumeak ageri

diren argazkien erakusketa. Gaurko eta atzoko herriko emakumeen irudi bilduma, Artzabalen eta Oiaro Kiroldegian ikusgai dago.



Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi eta Amaia Agirre aritu ziren kantuan.



Bertso-afarian elkartu zirenek klown saioaz ere gozatu ahal izan zuten.



Artzabal txiki geratu zen. Txartelak berehala agortu ziren.



Gaztelekukoek mural bat margotu zuten frontoian.

Azaleko historia pixka bat: martxoak 8

